

Aurkezpena

Bake-prozesua: aukerak eta errezeloak.

1. Zergatik garatu behar da bake-prozesua Nafarroan? Bost arrazoi

1. arrazoa. Humanizazioa.
 - 1. koadroa. Indarkeria politikoa Nafarroan. Zifrak. 1968-1998 aldia.
2. arrazoa. Koherentzia.
3. arrazoa. Nafarroako Parlamentuko erabakiak betetzea.
4. arrazoa. Elkarbizitzari buruzko akordioak hobetzea.
5. arrazoa. Normalizazioa eta kontziliazioa.

2. Nafarroako bake-prozesurako irizpideak

- 2.1. Egungo oinarriaren gainean eraikitzea.
- 2.2. Demokrazia: esparrua, muga, helburua eta tresna.
- 2.3. Nafarroa, erabaki markoa.

3. Bake-prozesuaren helburuak Nafarroan

- 3.1. «Integrazioa»: demokraziaren erronka Nafarroan.
- 3.2. Kontratu sozial eta politiko berria Nafarroan.
- 3.3. Inoiz ez indarkeria tresna politiko gisa.

4. Bake-prozesua Nafarroan garatzeko bideak.

Koordenatuak

- 4.1. Prozedura posible bat: Nafarroan eta EAEn mahai bana izango dituen bake foroa.
- 4.2. Dauden euskarri juridikoak aktibatzea.
- 4.3. Subiranotasunari buruzko kontsentsua zabaltzea.
- 4.4. «Lurraldetasunetik» auzokidetasun kooperatibora-ko elkarketa libreria.
- 4.5. Herri kontsulta balioztatze demokratikoko hori-zonte eta prozesuaren amaiera gisa.

aurkezpena

Bake-prozesua: aukera eta errezeloak

Bake-prozesuak distentsio eta elkarrizketarako garaiak izaten dira, hau da, urte luze eta latzen ondoren elkarbizitzaren eta autogobernu esparruen inguruko akordioak hobetzeko aukerak. Edo beste era batean esanda, normalizazio politikorako eta gizarte kontziliaziorako prozesuak. Dokumentu honek kezka bati erantzun nahi dio: Nafarroa bake-prozesuak eskaintzen dituen aukeretatik kanpo geratzearen kezka, alegia. ETAren su-etenak beste eszenatoki bati eman dio bidea, baita Nafarroako Autonomia Erkidegoan ere. Eszenatoki berri horretan orain arteko indarkeriazko borroka politikoak gainditzeko aukera izango dugu. Baina zalantza ugari dago oraindik, besteak beste, bake-prozesuak Nafarroan izan dezakeen esanahia, hedadura, eragina eta garapena. Dena den, nahikoa argi dago inork ez duela lehengo egoerara itzuli nahi; ez dakigu, ordea, nolakoak izango diren bake-prozesuaren ibilbidea eta helmuga. «Bake-prozesuaren» ideiak parte hartzeko gogoia piztu du askorengan, baina errezeloa eta deskonfiantza ere eragin ditu, ezkutuko edo kalterako taktika politikoa izango delakoan. Nafarroari dagokionez, bake-prozesuak hiru erantzun nagusi eragin ditu: batzuek bere protagonismoa azpimarratu nahi dute, beste batzuek zehaztasun praktikoaren mailari baxua deritzote eta, azkenik, zenbaitek prozesua baztertu egin du.

Nafarroako gizarteak bake-prozesuan parte hartzeko eskubide osoa du: txosten honen hasieran zehaztuko ditugu horren arrazoiak. Izan ere, beharrezkoa da aipatutako arrazoiak zehaztea, bake-prozesuaren kontrako hiru jarrera nagusiak kontuan hartuta: 1) batzuen ustez, bakea ETAK hiltzeari uztea besterik ez da; 2) beste batzuen ustez, bakea eta euskal nazionalismoa elkarri lotuta daude (eta Nafarroa sartzea ere bai); 3) zenbaiten iritziz, bi abiadura daude: EAE lehen martxan doa eta Nafarroa bigarren martxan. Argitalpen honetan, berriz, Nafarroak ere bake-prozesuan lehen martxan, berdintasunean alegia, parte hartzearen alde egingo dugu, gatazka eta indarkeria nagusi izan diren urte luze hauen ondorio latzak Nafarroak ere berdindin jasan baititu. Nafarroa arazoaren (euskal gatazkaren) objektua izan da, eta beraz, horren ondorio guztiak jasan behar izan ditu. Honengatik guztiagatik, konponbidearen (bake-prozesuaren) subjektu izan beharko luke, hemen ere ondorio guztiekin. Onerako eta txarrerako. Nafarroak garrantzi nabarmena izan du, konfrontazio eszenatoki izan baita, eta liskar eragile ere bai Euskadiko proiektu politikoarekiko binkulazioaren gaia dela-eta. Horrela, bada, Nafarroak bakearen eraikuntzan ere garrantzi nabarmena izan beharko luke. Argitalpen honetan, bestalde, bake-prozesua Nafarroan garatzeko har daitezkeen irizpide eta helburuak aipatuko ditugu. Hau da, bake-prozesua Nafarroan zergatik, zertarako eta nola gara daitezkeen azaldu nahi dugu.

Lan honetan bildutako gogoeta eta proposamenak Nafarroari buruzkoak dira batik bat, baina eredu eta espiritu jakin bati jarraiki burutu dira guztiak: zatiketa politiko handiak dituzten gizarteetako bake-prozesuetan oinarritu dira. Iragan hurbilari begiratzen badiogu, konstante bat azalduko zaigu beti: azken urteotan, indarkeria eta elkarbizitza markoari buruzko akordiorik eza dela-eta Nafarroako gizarte bizitza kutsatu egin da. Horren aurretik Diktadura izan genuen, eta aurretik Gerra Zibila. Atzerago eginez gero, hainbat eta hainbat bidegabeberia, porrot eta justifikazio aurkituko ditugu. Baina hori ez da, ordea, lan honen helburua.

Nafarroa arazoaren (euskal gatazkaren) objektua izan da. Ondorioz, konponbidearen (bake-prozesuaren) subjektu izan beharko luke

Aitzitik, aurrera egin behar dugu, etorkizunari begiratu eta garai berrietarako bidea urratu. Horretarako, gauza askori hasieratik heldu beharko diegu berriro, adibidez, hitzei, planteamenduei eta konponbideei. Lan honek, beraz, ekarpen konstruktiboek bidetik jo nahi du.

Senak agintzen duenez, bakearen inguruko kezketan ibili beharrean, bake-prozesuan bene-tan lanean hasi beharko genuke, ezbairik gabe. Izan ere, bakeak politika aktiboak behar ditu. Beste era batean esanda, gehiago hitz egin eta polemika gutxiagotan sartu: horixe izango litzateke, agian, onena, gehiago entzutea eta lanari ekitea. Ekintzen bidez eta lehen pertsonan egin behar dira ekarpenak. Bake-prozesuak kolektiboa izan behar du; beraz, konpartitu egin behar dugu eta elkarlanean aritu. Baina bake-prozesua humanoa ere bada, eta ondorioz, saihestezina da gauza batzuk zuzen egitea eta beste batzuk oker. Oso komenigarria litzateke autokritika indibiduala eta kolektiborako kontzientzia piztea, eta iraganean egindako huts egiteak aitortzea. Gauden moduan bagaude, bistakoa da komunitate gisa zerbait gaizki egin dugula: erakundeek, indar politikoek, indar sozialek eta herritarrek... zerbaitetan huts egin behar izan dute denek. Gizarte mugimendu honek beti egiten duen bezala, eztabaidarako gonbitea luzatzen dugu, eta noski, balorazioak, kritikak eta iradokizunak jasotzeko prest gaude.



1

Zergatik garatu behar da bake-prozesua Nafarroan? Bost arrazoi

1. arrazoa. Humanizazioa

Indarkeria politikoa eta enfrentamendu gogorrak nagusi izan diren urte luze hauen ondorioei kolektiboki egin behar diegu aurre: horixe da lehen arrazoa. Arrazoi humanoa da nagusiki, politikoa baino gehiago. Urte luzez, era guztietako indarkeria jasan dugu —arrazoi politikoek eragindakoa edo Estatu arrazoiaren izenean burututakoa—, eta indarkeria horri konponbide sozial eta kolektiboak eman behar dizkiogu. Hau da, indarkeria zuzenean jasan dutenei arreta, onarpena, babesa eta elkartasuna eman behar zaizkie. Beste era batean esanda, deshumanizazioari amaiera eman behar diogu. Muga garbia ezarri behar dugu, gizarte bizitzako bi garai erabat desberdin bereiziko dituen muga, beste etapa bati hasiera emango dion muga. Etapa berri horretan kontziliazioak leku nabarmena izango du eta, batez ere, konfrontazio politikoak ez du indarkeriaren ondoriozko biktimarik eragingo. Komenigarria litzateke, gainera, indarkeriarik gabeko garai horiek irudikatu eta esperimintatzea.

Ondorengo koadroan ikusten denez, Nafarroako gizarteak sorburu politikoa duen gaztaka biolento horren ondorioak biziki jasan izan ditu. Ildo horretan, bi izan dira ondorio nagusiak: giza eskubideen urraketa eta tragediak. Nafarroak milioi erdi biztanle dituela kontuan hartuta, zifrak ikaragarriak dira benetan. Datuek argi erakusten dute ondorioak zein larriak izan diren. Gauzak horrela, ezin dugu beste alde batera begiratu, ezer gertatu ez balitz bezala. Gizarteko zauriak gizarteak berak sendatu behar ditu. Aipatzekoa da, bestalde, bake-prozesuak gizarteko zauriak sendatu eta eraberritzeko prozesuak izan ohi direla funtsean (biktima eta presoek buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus elkarrikasi prestakuntza eta hedapen koadernoak 9. eta 10. aleak).

1. koadroa. Indarkeria politikoa Nafarroan. Zifrak. 1968-1998 aldia

	ekintza armatuak	hildakoak	bestelako biktimak	bahiketak	sabotajeak	atxilotuak	tortura salaketak	presoak	erbesteratuak
1968				-		+7			
1969				-		+22			
1970	2	1		-		+1			
1971	2	-	1	-		+27			
1972	7	2	-	-		+17			
1973	4	-	1	1		+25			
1974	4	-	2	-		+6			
1975	8	5	-	-		+7		+17	
1976	3	9	2	-		361			
1977	8	5	3	-		35			
1978	20	1	4	-		99			
1979	13	11	7	1		+112			
1980	13	5	2	-		+117		31	
1981	28	2	2	1		204			
1982	18	6	3	-		189			
1983	22	3	4	-		69			
1984	14	5	3	-	11	97			
1985	14	3	6	-		78			
1986	8	1	3	-		176			
1987	21	3	5	-	1	50		50/60	
1988	33	-	11	-	16	26		50/60	
1989	51	5	4	1	21	88		50/60	
1990	16	-	1	-	45	125		50/60	
1991	6	-	4	-	53	22		50/60	
1992	-	-	2	-	56	21	14	50/60	
1993	12	-	1	-	58	26	14	50/60	
1994	6	-	4	-	39	+68	28	50/60	
1995	9	1		-	131	29	12	50/60	
1996	16	-	9	-	233	22	38	50/60	
1997	-	-		-	130	221	49	50/60	
1998	1	1		-	56	89	10	50/60	
guztira	359	69	84	4	850	+2.436	165		

Oharrak

1. Koadroa osatzeko honako iturriak kontsultatu ditugu:

- Crónica de documentación y actualidad. Vasco Press Agentzia, 1984, 1985, 1986, 1987, 1988, 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997 eta 1998. Zutabe hauetarako: ekintza armatuak, hildakoak, bestelako biktimak, bahiketak eta sabotajeak.

- Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad. (8 liburuki), Txalaparta, 1993. Zutabe hauetarako: ekintza armatuak, hildakoak, bestelako biktimak, bahiketak, atxilotuak eta presoak.

- Egin egunkariko urtekariak: 1983, 1984, 1985, 1986, 1987, 1988, 1989, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996 eta 1997koak. Zutabe hauetarako: hildakoak, bahiketak eta atxilotuak.

- TATren (Torturaren Aurkako Taldea) urteko txostenak: 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997 eta 1998koak. Tortura salaketen zutaberako.

- Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Preso kopuruen zutaberako.

2. Atxilotuen eta presoen zutabeen agertzen diren (+) ikurrek honakoa ematen dute aditzera: adierazitakoez gain, beste atxiloteta batzuk ere egin zirela, baina ezinezkoa dela beste horiek zenbat izan ziren jakitea.

3. Amnistiaren Aldeko Batzordeen arabera, presoek kopuruak gorabeherak izaten ditu baita urte berean ere. Azken urteotan 50 eta 60 bitartekoa izan da.

4. Lauki zuriak ez dute 0 aditzera ematen: egiaztatutako daturik ez dugulako aurkitu utzi ditugu horrela.

5. Zutabe bakoitzean zifra altuenak azpimarratu dira.

6. Datu horiez gain, erbesteratu batzuk ezin izan dira kuantifikatu klandestinitate arrazoiak direla-eta.



Bake-prozesuak gizarteko zauriak sendatu eta eraberritzeko prozesuak izan ohi dira funtsean

2. arrazoa. Koherentzia

1988ko urriaren 7an «Bakearen eta tolerantziaren aldeko akordioa» sinatu zen Iruñan eta «Iruñeko Bake Mahaia» eratu. Horren aurretik, 1987ko azaroaren 5ean Madrileko Ituna sinatu zen eta 1988ko urtarrilaren 12an Ajuria Eneako Akordioa, «Euskadi Normaltzeko eta Pakeratze aldeko Hitzarmena», alegia. Akordioak eta Mahaiak egungo egoerari kalte ala mesede egin dioten edo zer-nolako ekarpenak egin dituzten alde batera utzita, bada aipatzeko moduko zerbait: unerik latzenetan ekimen politikoak eta ahaleginak egin ziren; beraz, orain ere, bakea benetan eraikitzeke garaia iritsi den honetan, ekimen politikoak eta ahaleginak egin beharko liriateke. Garai hartan Nafarroako alderdi gehienak elkartu egin ziren indarkeriaren kontra eta bakearen alde lan egiteko; beraz, orain ere komenigarria litzateke alderdien mahaia osatzea. Ez da, ez, zentzuzkoa konpontzeko unea iristean atzera egitea. Jokabide hori ez litzateke orain dela urte batzuk hartutako konpromiso haiekin bat etorriko.

3. arrazoa. Nafarroako Parlamentuko erabakiak betetzea

Hona hemen «ETA erakunde terroristak iragarritako su-etenenaren inguruan Nafarroako Gobernuak egindako komunikazioari buruzko erabakia»ren (1998ko azaroaren 5ean) bosgarren eta azken puntua: «*bake-prozesuak era positiboan aurrera egin eta foroak sortzen badira, Nafarroako Parlamentuak planteamendu horiek aipatutako foroetan lekua izan dezatela exijitzen du. Nafarroako gizarteak ezingo luke ulertu bertako indar politiko eta foru erakundeek une hain garrantzitsu hauetan ez parte hartzea, gure gizartean bake eta elkarbizitzan oinarritutako etorkizunerako bidetik kanpo geratzea*». Testu hori adierazgarria da: Nafarroako Parlamentuak berariaz eskatzen du bake-prozesuan egotea eta parte hartzea. Aipatutako erabakia, beraz, arrazoi nahikoa eta erabakiorra da ikuspegi demokratikotik. Gainera, aho bateko onarpena izan ez bazuen ere, aipatutako erabakia gehiengoak onartu zuen. HB eta EA talde nazionalistek ez zuten erabakiaren aldeko botorik eman.

4. arrazoa. Elkarbizitzari buruzko akordioak hobetzea

Indarkeria eta guzti ala indarkeriarik gabe, Nafarroaren kasua paradigmaticoa da: komunitate baten subirotasunaren inguruan konpondu gabeko gatazka politikoaren eredu dugu. Eta horrez gain, elkarbizitza esparrurako behar adinako adostasunik ezaren adibide garbia. Egungo marko politikoa Trantsizioaren ondorioa izan da. Gehiengoa marko horren alde egonda ere, Nafarroako gutxiengo nazionalista euskaldunarengan sortutako bazterketa sentimendua etengabeko arazo iturri dugu: konfrontazioak, liskarrak, egonkortasunik eza eta frustazio kolektiboa eragiten ditu. Nafarroa ez da arazo normalak dituen autonomia komunitate normala. Nafarroako gizarteak bi ezaugarri nagusi hauek ditu: zatiketa politiko handia eta identitate aniztasuna. Eta ondorioz, ezaugarri horiek berekin dakartzaten arazo guztiak jasan behar izan ditu. Nafarroako gizartea zatituta dago bokazio nazional espainiar-nafar-euskaldunaren inguruan, eta zatiketa horrek erabateko eragina du gizarte bizitzaren esparru guztietan: politikan, sindikalgintzan, kulturen, hizkuntza alorrean, hezkuntzan, eta baita familia mailan ere. Zatiketa politiko handi horri aurre egiteko ezinbestekoa da status quo berraztertzea eta hobetzea elkarbizitzarako oinarrizko markoak atxikimendu gehiago izan ditzan. Aipatzekoa

Elkarbizitza hobetzea izan ohi da gizarte aurreratuen benetako erronka, eta horixe izaten da, baita, bake-prozesuaren benetako eragilea ere

da, bestalde, berrazterketa eta hobekuntza ahaleginak indarkeriarik egon ez balitz ere berdin egin beharko lirатеkeela.

Indarkeriazko konfrontazioak, gainera, arazo horren dimentsio politikoa distortsionatu egin du eta beste arazo berezi batzuk sortarazi. Bestetik, giza tragediak direla-eta, ez da bate-re erraza konponbideak lasaitasunez bilatzen saiatzea. Distentsioak, ordea, elkarrizketari irekitzen dio bidea. Konfrontazioak ez balu alderdi biolento eta tragiko hori izan, nahikoa litzateke erkidegoaren, elkarbizitzaren eta autogobernuaren etorkizunari buruzko eztabaida ordenatua martxan jartzea. Baina zatiketa soziopolitiko horri indarkeria gehitu zaionez, behar-beharrezkoa da «bake-prozesua» burutzea. Are gehiago ETAK indarkeria utzi ondoren sortutako aukerak kontuan hartuta, konponbide soziopolitiko berri handi baterako bidea erraztu baitu. Elkarbizitza hobetzea izan ohi da gizarte aurreratuen benetako erronka, eta horixe izaten da, baita, bake-prozesuaren benetako eragilea ere.

5. arrazoa. Normalizazioa eta kontziliazioa

Bake positiboa lortzeko, indarkeriarik ez egoteaz gain, ezinbestekoa da arrazoietan eta ondorioetan aurrera egitea. ETAK su-etena iragarri duelako, Nafarroa ez da besterik gabe gizarte normal bihurtuko. Boutros Ghali Nazio Batuen idazkari nagusi-ohiaren "Bakerako Agendan" jasotzen denez, bakea «eraiki» egin behar da, ez da zuhaitzetik eroriko, fruta bezala (Ortega y Gasset). Urte luzez indarkeriazko gatazka politikoan murgilduta egon ondoren, egoera aldatu eta gainditzeko nahiatezkoa da politika aktiboak bultzatu eta gizarteak ere horiek onartzea. Bai agintari politikoen artean bai gizartearen oinarrian normalizazioa eta kontziliazioa lortzeko, bake-prozesua behar-beharrezkoa da.

Su-etenaren iragarpenak tentsio eta polarizazio politikoa eragin ditu, iraganean aztertutako bake diseinuetan ez baitzen horrelakorik espero. Bada tentsio eta polarizazio politiko horrek argi erakusten du ezinbestean burutu behar dela elkarrizketan, negoziazioan eta sako-neko arazoei buruzko akordioetan oinarritutako prozesu politikoa. Azkenik, gogora ekarri nahi dugu nafarrek ere bake-prozesua, gertaera historiko hori, bizitzeko eta gozatzeko esku-bidea dutela. Nafarrek komunitate normala izateko eskubidea dute, gatazka eta guzti, jakina, baina arrazoi politikoek eragindako tragediarik gabe.



2

Nafarroako bake-prozesurako irizpideak

2.1. Egungo oinarriaren gainean eraikitzea

Bake-prozesu guztiak desberdinak izango dira, ziur aski. Gure kasuan, behinik behin, etorkizuna ez da ezerezaren edo orain arteko guztiaren suntsiduraren gainean eraikiko. Bake-prozesuak ez dira izaten hondamendi natural, gerra suntsitzaile edo iraultza gogorren ondorioak; aitzitik, indarkeriazko konfrontazio politikoaren ondorioak izaten dira: ez da irabazlerik edo galtzailerik egoten. Hori dela-eta, dagoenetik abiatu behar dugu, nahiz eta dagoen hori etorkizunearan agian aldatu. Kontua ez da hutsetik hastea. Bidea askoz ere errazagoa da. Azken urteotan, aurrerapauso handiak eman dira. Beraz, ezin dira demokrazia urte hauek alde batera utzi. Baina, bestalde, argi ikusten da konponbide batzuk ez direla behar bezain eusgarriak, hobetu egin daitezkeela. Honetan datza, bada, bake-prozesua: horrelako konponbideak hobetzen saiatzean. Konponbide horiek nahiak bete eta beldurra uxatzeko modukoak izan behar dute, gainera.

2.2. Demokrazia: esparrua, muga, helburua eta tresna

Horra hor konponbidearen gakoa. Ba al dago Nafarroako sistema politikoa demokratikoagoa izateko modurik? Nola izan liteke demokratikoagoa? Zein dira bake-prozesuen marko eta mugak? Printzipio eta prozedura demokratikoak. Zein dira bake-prozesuen helburua eta tresnak? Demokrazian sakontzea. «Demokrazia gehiago, bake gehiago»: horixe da lan honen oinarritzko hipotesia.

Aurreko puntuetan oinarrituz, honako baieztapena egin dezakegu: demokrazia hobetzea helburutzat hartzen badugu, bake-prozesuan izango dela Nafarroarentzako lekua. Demokrazia, demokraziaren garapena eta hobekuntza hartzen baditugu beti testuinguru, ipar eta goi eta behe mugatzat, egungoa baino konponbide baliagarriagoak aurkitu ahal izango ditugu. Zergatik ez saiatu?

Gure demokraziak hogeitaz hamar urte pasatxo besterik ez ditu. Ez da, beraz, munduko zaharrenetakoa. Ildo horretan, gogora ekarri behar da demokrazia zaharrek etengabe burutzen dituztela berrikuntzak eta aldaketak araudi eta konstituzioetan, beti-ere beren sistema demokratikoak eta elkarbizitza soziopolitikoa hobetzeko asmoz. Gure kasuan, Diktadura osteko Trantsizioa orokorrean positiboa izan zen, baina ez, ordea, perfektua. Ez da oso eredugarria berrogei urte askatasunik gabe eman ondoren, Nafarroako foru autonomiaren estatus berri horri buruzko herri kontsultaren bidez zuzeneko baieztapena emateko aukera ukatzea. Garai hartako defizitek hortxe iraun dute gaur egun arte euskal gatazkan oro har, eta zehazki Nafarroaren kasuan.

2.3. Nafarroa, erabaki markoa

Ikuspegi demokratikotik, Nafarroak erabaki markoa osatzen du; Nafarroaren orainari eta etorkizunari buruzko erabakiak bertako erabaki markoan hartu eta onartu behar dira, beraz. Litekeena da, gainera, erabaki hori eta EAEn edo Estatuan hartutakoa berbera eta aldi berekoa izatea. Baina Nafarroak izan behar du beti esparru lotesle bakarra. Nafarroa komunitate politikoa da egun, eta horretaz kontziente da gainera. Ondorioz, erabakien subjektu eta azken hitza duena izateaz gain, komenigarria litzateke Nafarroan bertan ere konponbideak aurkitzen eta diseinatzen hastea.

3

Bake-prozesuaren helburuak Nafarroan

Hamaika urtetik hona, «kanpoan dauden nafarren eguna» ospatzen da udaberrian. Egun hori bertan jaio eta kanpoan bizi diren milaka nafarren —gehienak lan kontuak direla-eta joandakoak— omenez antolatzen da. Zergatik aipatu dugu irudi hori? Bada milaka direlako, baita, Nafarroan bizi arren «kanpoan daudela» sentitzen duten nafarrak ere, euren burua Nafarroako eredu ofizialetik at ikusten baitute. Eta urteko egun guztietan, bizitza osoan izaten dute sentimendu hori.

Nafar horiek kritikoak dira, politikoki euskaltzaleak. Oro har oso dinamikoak izaten dira tokian tokiko elkarteak eta ekimenak antolatzen: euskaltzaletasun kulturalaren indarra dugu horren guztiaren adibiderik nabarmenena. Erreferentzia edo gidaritza soziopolitikoak bilatzen dituztenean, gehiago begiratzen dute Ajuria Enea aldera Nafarroako Jauregira baino. Harri eta zur geratzen dira hizkuntza arloan eta euskararen irakaskuntzan oraindik arazoak daudela ikusita. Ez dute ulertzen, adibidez, nola litekeen komunitate elebiduna izanik, hogeitauroko demokrazia honetan 6 gobernu nafar pasa ondoren, Nafarroako Jauregiko agintari gorenaren artean euskal hiztunik inoiz ez egokitu izana: ez lehendakaria, ez lehendakariordea, ez bozeramaleak ezta kontseilariak ere.

Berdin dio zenbateko portzentaia osatzen duten: biztanleen laurdena, herena edo zenbat diren. Gizarte talde hori esanguratsua da eta nahikoa elkarbizitzan eta egonkortasunean eragina izateko. Honakoa pentsatzen dute: ez dituela inork entzuten, ez dituztela kontuan hartzen, diskriminatuta daudela nolabait... eta jakina, ez dira sinbolo politikoekin inondik inora identifikatzen. Hitz batean, halako dibortzio sozial baten aurrean gaude, isilpean eta oso barruan gordea; talde soziopolitiko handi baten ustez, elkarbizitza sisteman legitimazio defizit handia dago. Ez dute pentsatzen gobernu edo politika jakin baten oposizioan daudela. Egoera askoz ere larriagoa da: Nafarroako eredu instituzionaletik kanpo daudela pentsatzen dute, beren herrian atzeritar sentitzen dira.

Gure sistema politikoak, oro har, ordezkartzen oinarritutako demokraziek izan ohi dituzten ezaugarri bereizgarri guztiak ditu: hiritarrek aukeratutako kargu publikoak dituen eskubide estatuak; hauteskunde libre, inpartzial eta ugariak; adierazpen askatasuna; informazio iturri alternatiboak eta funtzionamendu autonomoa duten elkarteak. Zein da, beraz, gure sistemaren defizit handiena? Zein arlo hobetu beharko litzateke, beraz? Zer hobetu beharko genuke sakoneko «ikuskapen demokratikoa» eginez gero? «Kanpoan daudela» sentitzen duten nafarren, integratuta sentitzen ez diren biztanle horien integrazio erabatekoa, eraginkorra, objektibo eta subjektiboa, hain zuzen.

3.1. «Integrazioa»: demokraziaren erronka Nafarroan

Zer da «integrazioa»? Zertan datza? Zatituta dauden herrialdeetan edo politikan, kulturaren, arlo nazional edo linguistikoan anitzak diren herrialdeetan elkarbizitza markoa politikoki egokitu, aldatu eta zuzentzean datza integrazioa, baztertutako taldeak edo baztertuta daudela sentitzen duten taldeak sistema politikoaren barne sar daitezen.

Nafarrek ere bake-prozesua, gertaera historikohori, gozatzeko eskubidea dute

Hori guztia ez da berria edo kontu bitxia. Tradizio demokratiko luzea eta aniztasun sakinak dituzten gizarte aurrerakoietan horrelaxe jokatu izan dute: Suitzan, Belgikan, Herbehereetan, Austrian eta, orain dela gutxi, Ipar Irlandan. Herrialde bakoitzak bere konponbideak bilatu dituen arren, oinarrizko arazoak konpondu ahal izateko gehiengoan oinarritutako printzipioak alde batera utzi dituzte guztiek. Horretarako, akordio maila handiagorak lortzeko beharra finkatu izan dute. Aipatutako maila handiago horiek, bestalde, bi mutur hauen artean daude: gehiengo kualifikatuagoen eta erabateko kontsentsuaren artean. Politikologoek «demokrazia konsoziatiboa» deitzen diote horri.

Hitz batean, integrazioaren bidez demokrazia hobetu eta sakondu ahal izateko, erakundeak, legeak eta ohitura politikoak aldatu eta indartu egin behar dira, denboraren, gatazken eta krisien frogak gainditzeko gai izan daitezen. Zatiketa arazo sakonak dituen elkarbizitza sistema orok ondorengo erronka izaten du: gizarte integrazioan aurrera egitea.

Demokraziaren ikuspegi dinamikotik, egoera berriek eskubide berriak sortarazten dituzte. Ildo horretan, printzipio garaikideen arabera, esatekoa da nafar guztiek —edozein identitate eta helburu dituztela ere, gehiengoa edo gutxiengoa osatzen dutela ere— barne hartu eta kontuan izango dituen elkarbizitza esparrua izateko eskubidea dutela. Ondorioz, eskubide hori legeetan, politikan eta erakundeetan argi jasota geratuko den bermea ere izan behar dute.

3.2. Kontratu sozial eta politiko berria Nafarroan

Gehiengo parlamentarioa izaten da gobernuen legitimitatearen oinarria, baina zenbait gai —adibidez prozesu konstituziogileak edo estatutugileak— ezin dira gehiengo hutsaren menpe utzi. Erdia gehi bat ere nahikoa izaten da banatutako edo identitate anitzeko gizarteetako elkarbizitza markoak finkatzerakoan. Kontsentsu zabalagoak behar dira, oinarrizko kontsentsuak. Nafarroako gizarte kontratuaren bidez, hain zuzen, zenbait arlori buruzko kontsentsurik eza gainditzeko lagunduko luketen konponbide politiko berriak aurkituko lirateke. Hauexek dira, izan ere, arlo horietako batzuk: oinarrizko elkarbizitza arazoak, identitatea, proiektu politikoa eta EAE eta Espainiarekiko harremanak. Nafarroako egungo gizarte kontratua ez bada behar bezain baliagarria, nafar batzuentzat behinik behin, dagoenetik abiatu eta hobetu egin beharko litzateke eta har dezakeen bide bakarrentzat abiarazi: demokrazia hobetu eta sakontzeko biderantz, hain zuzen. Zatiketak gainditzeko, aukera soziopolitiko desberdinen eskubideak erabat eta zuzentasunez bateratu behar dira.

Gizarte kontratu berriak bi elementu hauek izango lituzke: batetik, erakundeetan aldaketak egingo lirateke, baztertuta sentitzen diren biztanleak gure komunitatearen proiektuan integra daitezen; bestetik, hitzartutako erabaki formula eta mekanismo berriak finkatu beharko lirateke Nafarroako estatusaren berrazterketa hipotetikoaren inguruan. Beste era batean esanda, marko instituzionalaren inguruan kontsentsu handiagoa lortzea izango litzateke helburua eta horretarako, aldaketa posibleak aurreikusiko lituzkeen araudia hitzartu beharko litzateke.

Indar politikoen arteko korrelazioa zertan den ikusita, gizarte kontratu berria ez litzateke, agian, oso desberdina izango, baina hiru desberdintasun nabarmen izango lituzke hala ere:

Kontua ez da hutsetik
hastea. Izan ere azken
urteotan, aurrerapauso
handiak eman dira.
Horregatik, hobetu daite-
keena hobetzean datza
gakoa

lehenengoa, hitzartutako berrikuspen klausula; bigarrena, EAErekiko atea gehiago irekitzea; eta hirugarrena, guztietan garrantzitsuena, eragindako talde sozial eta politiko guztiek kontratua berariaz sinatzea, denen ikuspegiak egongo bailirateke bilduta, eta ondorioz, kontratu osoarekiko lotura eta konpromisoa dutela ikusiko lukete.

Kontua ez da proiektuak uniformizatzea. Proiektu bakoitzak bere asmoak defendatuko ditu beti. Proiektuak demokratikoki alderatu beharko lirateke, hots, indarkeriarik eta mugarik gabe. Horretarako, oinarriko puntuak gehiengoaren eta gutxiengoaren artean —joko politikoaren arauak— adostu beharko lirateke lehenbizi. Adostu beharreko puntuetako bat gatazken tratamendua da. Ildo horretan, kontuan hartu behar dugu gizarteko elkarbizitzan ezinbestean sortzen direla arazoak; beraz, oso egokia litzateke arazoak bide positibo eta konstruktiboen bidez, indarkeriarik gabe, konpontzeko bideak aurreikustea.

Kontratu sozial eta politiko berriaren eta Nafarroaren eskubideen aitorten eta adiskidetzaren oinarriak finkatu ahal izateko, badira gizarte osoan onartzen diren lau elementu, gutxienez. Elementuok ikuspegi guztien bilgune izango lirateke, beraz. Aipa ditzagun zein diren: nafarren kontzientzia kolektiboa; Nafarroako markoaren —espainola zein euskalduna— berezitasuna; autogobernuaren tradizioa eta historian zehar, etenik gabe, bere erakundeak eta subirotasun maila handiak eduki izana; azkenik, indarkeriarik ez erabiltzeko eta elkarrizketaren bidezko konponbideak aurkitzeko borondatea .

3.3. Inoiz ez indarkeria tresna politiko gisa

Iragan hurbilaren irakurketa kritiko eta autokritikoa eginez gero, honako emaitza eta konpromisoa hartu beharra dago: indarkeriak herri honetako konfrontazio politikotik kanpo geratu behar du behin-betiko, desagertu egin behar da. Indarkeria oro, era guztietako indarkeria. Aurrerantzean, indarkeriak inoiz ez luke dialektika politikoan lekurik izan beharko. Indarkeriak berebiziko sufrimendua eta kalteak eragin dizkie hainbat hiritar, familia eta gizarte talderi. Indarkeriaren ondorioz elkarbizitzak porrot egiten du errotik, eta porrot horrek guztiongan du eragina. Indarkeriaz, halaber, nazioartean ere guztiz itxura txarra ematen da. Aitzitik, indarkeria gaindituz gero, nazioarteko onarpenera eta harrera ona eskuratzen dira, eta gainera, indarkeria gainditzea lortu duen komunitatearen autoestimua ere handitu egiten da.



4

Bake-prozesua Nafarroan garatzeko bideak. Koordenatuak

Agian, iritsi da proiektzioak egiteko garaia, Nafarroako bake-prozesuari buruz hitz egiten dugunean zertaz ari garen simulatzeko garaia. Gai hori guztiok ulertzeko eta konpartitzeko moduko parametroetan planteatu behar dugu. Zer du propioa bake-prozesuak Nafarroan? Zein eduki, aldaketa eta ondorio eragingo lituzke bake-prozesuak hemen eta orain? Prozesua osotasunean eta letra txikiz irudikatzea, hipotesiak egiteko bada ere, oso egokia litzateke kontrastean eta eztabaidan aurrera egin ahal izateko, eta bereziki, lan esparrua eta horrek esan nahi duen guztia mugatzeko: beldurrak uxatu, errealitate printzipiora hurbildu eta bertan murgiltzeko.

Honakoa azpimarratu behar dugu: edozein aldaketa juridikoren arrazoia, Nafarroako estatusean egin daitekeen edozein aldaketaren sorburua lege egitura herri borondatearen arabera egokitzeko premiaren ondorioa izango dela, eta inoiz ez indarkeriak eragindako presioaren ondorioa. Honako printzipio hau aplikatu behar da: «indarkeriarik gabe edozerri buruz hitz egin daiteke». Hala erabakiz gero, printzipio hori ordenamendu juridikoan ere sartu beharko litzateke. Ikuspegi demokratikotik ez da oso onargarria ordenamendu juridikoan aldaketak egitearen arrazoia indarkeriari erantzutea izatea: demokrazia distortsionatu eta perbertitzea besterik ez da hori. Baina ikuspegi demokratikotik ezin da gaitzetsi, ordea, komunitate jakin bateko herritarren borondatea hobeto jaso eta bideragarri bihurtzeko asmoz arauak egokitzea. Izan ere, hori demokrazia bera hobetzea baita.

Egungo marko instituzionala aztertu egin beharko litzateke: lurralde bakarraz osatutako Nafarroako Erkidegoa autonomien Estatu espainiarraren baitan, kontuan izanik, gainera, Konstituzioak Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko eskubidea aitortzen diola. Bada egungo marko instituzionala hobetu ahal izateko, demokrazian sakonduz kontsentsu handiagoa ekarriko duten formulak bilatu beharko lirateke. XX. mendearen bukaeran, globalizazioaren eta Europako proiektuaren baitan gauden honetan, ez da defendagarria eta are gutxiago desiragarria komunitate txiki honen errealitatearen eta proiektuaren arteko zatiketa sakonari bere horretan eusten jarraitzea.

Nafarroako bake-prozesuari begira, horixe baita esku artean duzun lanaren xedea, autogobernu mailak edo EAErekiko harreman instituzionalak zehaztea baino garrantzitsuagoa da, bate-tik, erabaki eta aldaketa metodoak finkatzea; eta bestetik, Nafarroako erakundeek, indar politikoek eta hiritarrek horretan nola parte hartu beharko luketen erabakitzea. Honakoa erabaki behar da, beraz: zein diren hiritarren borondatearen erabaki eta ordezkapen prozedura demokratikorik egokienak eta eraginkorrenak antolamendu juridiko-politikoari dagokionez. Ildo horretan, garrantzitsuagoa da «nola» erabaki «zer» erabaki baino.

4.1. Prozedura posible bat: Nafarroan eta EAEn mahai bana izan-go dituen bake foroa

Inor kanpoan utziko ez duen prozedura demokratiko malgua interesgarria litzateke. Lehenengo eta behin, EAE eta Nafarroa direnez eszenatokia eta ordezkari demokratikoak akto-

Hitzarmen ekonomikoa aldi jakin baterako hitzartzen den bezala, subiranotasunari buruzko ituna zerbait dinamikoa da eta berriro azter eta hitzar daiteke

re nagusiak, zentzuzkoa dirudi, bestelako aukerak baztertu gabe, «Bake Foroaren» ideian aurrea egitea. Gure kasuan, aipatutako foroak bi mahai izan litzake, gutxienez, Nafarroan bata eta EAEn bestea, eta bien artean nolako edo halako komunikazioa, elkartrukea, koordinazioa eta elkarreragina gauzatuko lirateke.

Aipatutako irudikapenaren haritik komenigarria litzateke Nafarroako eta EAeko Lehendakariak, Espainiako Gobernuko Presidentearekin elkarlanean, aurrea hartzea, aipatutako foroa abiaraztea eta horren funtzionamendua eta garapena sustatzea Legebiltzarrean edo pareko instantziaren batean akordioa lortu artean. Egokia litzateke agintari politikoei bi mahaiak martxan jartzea, aldi berean, armonizatuta edo bakoitzak bere kasa jarri ere, egungo eszenatokia baino lehenagoko bake mahaien funtzionamenduari jarraiki. Bi mahaien arteko koordinazio bideak anitzak izango lirateke, ziur aski: bien ordezkarien arteko zuzeneko harreman formalen bidezkoak edo, zuzeneko harreman formalak burutu beharrean, bietan eseriko liratekeen alderdien bidezkoak. Izan ere, bi erkidegoetako mahaietan ia alderdi berberak eseriko lirateke, UA eta CDN izan ezik, horiek erkidego bakar batean baitute ordezkariak.

Iparraldeak (eta VI. Merindadeak, Behe Nafarroak) prozesu honetan izan beharreko parte-hartzeari dagokionez, bertako egoera oso berezia dela kontuan hartuta, honakoa litzateke egokia eta beharrezkoa aipatutako parte-hartzea eraginkorra izateko: interlokuzio politikoa ezartzea. Interlokuzio horrek dinamika propioa izango luke eta EAerekiko eta Nafarroarekiko harremanak bi aldean borondate bateragarriaren arabekoak izango lirateke.

Gure gizartea aktiboa, informatua eta parte hartzailea da, eta mobilizatu egiten da. Beraz, prozesu honetan nola edo hala parte hartu beharko luke. Nafarroak merezi du etorkizunaren eraikuntzan parte hartzeko aukera izatea, baina prozesu osoan, ez bukaera hutsean. Izan ere, gure gizarteak behin eta berriro azaldu du indarkeriaren kontrako eta elkarrizketaren aldeko konpromisoa; argi geratu dira bere planteamenduen indarra eta lortutako aurrerapausoetan izan duen eragina. Oso baliagarria litzateke erakunde publikoek, batik bat Udalek eta Nafarroako Parlamentu eta Gobernuak (ikus elkarriren aldizkari monografikoa: «*herri eta Udalen ekarpena bakearen eraikuntzan*») hiritarrek prozesu honetan parte hartzeko formulak sustatu eta indartzea. Hirigintza edo azpiegitura planen ohiko eskema (hau da, «aurreproiektuak aurkeztea, jendeaurrean ezartzea, alegazioak jasotzea eta proiektua burutzea») eredutzat har genezake, oro har, bake eraikuntzarako. Halaber, beren ustez ekarpenen bat duten gizarte agenteek ere parte hartzeko aukera izan beharko lukete.

4.2. Dauden euskarri juridikoak aktibatzea

Azkenean, akordio politiko demokratikoak lege dira. Eta horrelako prozesuetako dinamismo sortzailearen ondorioz tresna juridiko berriak eratzen dira batzuetan. Dena den, egungo egitura juridikoan zenbait ate aldaketei irekita daude jadanik: hori ez da kasualitate hutsa, oraindik erabat konpondu gabeko desadostasun sakonak daudela erakusten baitu.

Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeari dagokionez, honako arauak ditugu: Konstituzioaren Aldi Baterako Laugarren Xedapena, Amejoramenduaren Bigarren Xedapen Gehigarria eta Gernikako Estatutuaren 2 eta 47.2 artikulua. Bi erkidegoen arteko lankidetzak eta



kooperazio akordioak, berriz, honako hauetan daude jasota: Amejoramenduaren 70.2 eta 70.3 artikuluetan eta Gernikako Estatutuaren 22.2 artikuluan. Horiez gain, ondorengoak ere aipatu behar dira: Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria, 2. artikulua, Amejoramenduaren Lehen Xedapena eta Gernikako Estatutuaren Xedapen Bakarra. Azken hori foru lurraldeen eskubideen erreserba baimenaren klausula da, hau da, Nafarroa eta EAerako besterik ez da baliagarria.

Hainbat arrazoi direla-eta, hizpide dugun gaiari dagokionez, arau horietako bat bera ere ez da benetan praktikan jarri Trantsiziotik hona. Aktibatu gabeko tresna juridikoak dira. Guztietan birtualenak eta aldakorrenak eskubide historikoak izango dira agian, arrazoi ugariren ondorioz. Batetik, subirotasunaren eta lurraldetasunaren auziak hartzen ditu aldi berean. Bestetik, oinarritzko arazoan euskarri juridikoa izan da, eta halaxe da orain ere (fiskalitatea, Nafarroaren autonomia estatua, konpetentzia jakin batzuen legitimitatea); beraz, bestelako bideak bezain bideragarria eta eraginkorra izango da ziur aski, edo bideragarriagoa eta eraginkorragoa agian. Azkenik, izatez paktua denez, oso egokia da bizitzen ari garen une historiko honetarako. XXI. mendearen arabera egokitzapen bakezalea burutzeko (XIX. mendean Karlistaden ondoren egin zen bezala), paktuan oinarritutako tradizio horretan hiritarren ahotsa eta hitza ere sartu beharko lirake, hiritarren artean kontsulta eginez, horixe baita garai honetako demokrazia kontsolidatuen ezaugarria.

Aurretiazkoak, oinarritzko alderdiak (bake-prozesua zertan datzan, Nafarroak parte hartu behar ote duen, nola...) eta prozedurak dira, une hauetan, eztabaidaren ardatzak; beraz, goiz izango da, agian, akordiorako eszenatokiak edo helmuga hipotetikoak aipatzen hasteko. Baina gogora ekarri nahi dugu zein den konponbide orotarako gutxiengo adostasun puntua: azken hitza Nafarroako biztanleei ematea eta hitz horrek ordenamendu juridikoan isla izatea. Horretarako, atal honetan aipatutako tresnaren bat edo batzuk erabil daitezke, edo hortik sor daitezkeen beste batzuk, eta baita dialektika politikoak eskainiko dituenak ere.

4.3. Subiranotasunari buruzko kontsentsua zabaltea

Egia esanda, hori ez da gauza berria. Historikoki, Nafarroak tentsio, konfrontazio eta negoziazio harremana bizi izan du Estatuarekin bere subiranotasuna dela-eta. Harreman hori ez da beti baketsua izan: gerrak izan dira eta biolentzia nabarmena izan da hainbat unetan. Gai polemiko horrek barne dimentsioa ere izan du. Foruen inguruko itun jarraiek gatazka, negoziazio eta akordio zikloen historia azaltzen dute. Autogobernuarekiko ardura Nafarroako idiosinkrasia kolektiboaren ezaugarria dela esan dezakegu, eta gainera jende askorengan ematen da.

Gatazka eta negoziazio ziklo horiek, bestalde, sistema demokratikoen berezko ezaugarriak dira. Baina tradizio horrek gaur egun baldintza estruktural hobeak ditu eraldaketa eta hobetze positiboak lortzeko: proiektu europarrak eta globalizazioak mugak desdramatizatu egin dituzte eta ohiko estatu-nazioen subiranotasuna birplanteatu dute eta baita estaturik gabeko nazioena ere. Joera horren barruan gero eta indar handiagoa hartzen ari dira honako hauek: elkarbizitza marko naturala eta jendearen eta hurbileko ingurunearen arteko identifikazioa. Gainera, herri borondatearen aukeraketako eta araudi egokitzapeneko prozedurek nabarmenki egin dute aurrera.

«Lurraldetasunaren printzipioa» beste ikuspuntu batek ordezkatu dezake: «mankomunitate librearen printzipioak»

Hipotesi gisa baino ez bada ere, ezin al da Nafarroako subiranotasun markoa zati historikoen arabera elkarbanatu? Hitzarmen ekonomikoa (kontzertua, EAEko terminologiaren arabera) aldi jakin baterako hitzartzen da; Europako Batasunak ere konbergentzialdiak finkatzen ditu. Horiek bezala, espainiar Estatuko foru autonomia erkidego baten subiranotasunari buruzko ituna zerbait dinamikoa da eta urte batzuetarako hitzar daiteke, gero berriro aztertu eta berriro hitzartu bi aldetatik: barrutik, indar politikoen eta gizarte beraren artean; eta kanpotik Estatuarekin. Sistema demokratikoetan ez dago taburik. Ez dago ezer betirako itxita baldin eta aldaketa eskatera garbia bada. Ezta Estatuarekin harreman edo elkarketa forma berriak finkatzeko aukera ere, bereziki bide demokratikoetatik egiten bada eta helburua kontsentsua zabaltzea bada.

4.4. «Lurraldetasunetik» auzokidetasun kooperatiborako elkar-keta libreria

Euskal Herriko «lurraldetasuna» edo Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko lurraldeen arteko harreman politikoak Euskal Herriko gatazka politikoaren alderdi bat da. Arazoaren deskribapena da eta Nafarroan eta EAEn adierazpenak desberdinak dira. Nahiz eta inoiz ez zaion populazioari espreski galdetu, ziur aski EAEko gehiengoak ondo ikusiko luke Nafarroa proiektu politiko berean sartzea, eta ziur aski Nafarroako gehiengoak ez luke ondo ikusiko.

«Lurraldetasunak» arazo hau adierazten du: ez dagoela nahiko kontsentsu, konfigurazio politiko eta instituzionalari dagokionez. Baina, bake-prozesuari dagokionez, arreta konponbideetan jarri behar da. Eta etorkizunari begiratu iraganari baino gehiago. Lotzen duena detektatu eta bultzatu, banantzen duena alde batera utzi. «Euskal Herriko lurraldetasuna» konfrontazioaren jatorri izan da Nafarroan. Arazo horren konponbidea denentzako termino onargarrietan planteatu beharko litzateke.

Ikuspuntu demokratikotik, Euskal Herri elkartua eta independentea zilegia da eta hain zilegia da marko politikoetan banantzea eta marko horiek komunean espainiar estatuaren eta proiektu europarraren barruan egotea baino ez izatea. Dena une bakoitzeko herri borondatearen arabera da. Egungo globalizazio garaian eta sistema demokratiko baten barruan, pertsonak, enpresak eta erakundeak askatasunez ibiltzen dira eta nahi dituzten fluxu, komunikazio eta itunak ezartzen dituzte auzokidearekin eta baita antipodetako biztanlearekin ere. Mugak errealak baino gero eta birtualagoak dira. Elkarrekiko menpekotasuna gizarte modernoaren ezaugarria da. Erabaki subjektuak pertsonak eta komunitateak dira, eta ez lurraldeak edo mapak.

Gure helburua hau da: esparru instituzionalean (hitzarmen sozialaren isla maximo gisa) eta egitura juridiko-politikoan (elkarbizitzarako araudi gisa) bi errealitate sozial eta politikoen artean inolako elkarketarik finkatzen ote den ikustea. Bi errealitate horiek historio paraleloak dituzte (askotan elkarri lotuak) hainbat ezaugarriekin: adostasunak eta desadostasunak, izaera historiko, kultural, linguistiko, fiskaleko eta autogobernuko loturekin, Konstituzioan onartutako eskubide historikoak eta baita desadostasunak ere gizartean gehien onartutako eredu politikoari dagokionez.



Nafarroa banatuta dago gai horri eta konponbideei dagokionez, bideragarriagoa eta erabilgarriagoa dirudi formula zorrotzago eta landuagoen alde jartzea, muturreko dikotomian auke-ratu beharra izatea baino: Nafarroa bakarrik edo Nafarroa EAren barruan; proiektu bera elkarbanatzea edo elkarri bizkarra ematea. Gaur egungo banaketa instituzionalaren eta politika unitate bera osatzearen artean hurbiltzeko tarteko aukera ugari egon daitezke. Posible da izaera kontsultibo, bateratzaille eta koordinatzaileko hitzarmenak eta erakundeak ezartzea, bakoitzaren interes eta borondate politikoaren arabera.

Horri dagokionez, «Euskal Herriko lurraldetasun» kontzeptua zehazten joatea komeni da eta kontzeptu hori auzokidetasun kooperatiborako elkarketa librearen proposamen zehatzengatik ordezkatzeko, gaur egungo geldiunea gainditzeko eta eztabaida kolapsatua desdramatizatu eta lasaitzeko. Etorkizunean, «lurraldetasunaren printzipioa» beste ikuspuntu batek ordezkari dezake, errazago elkarbanatzeko eta konstruktiboagoa: «mankomunitate librearen printzipioa», hau da, indarrak, proiektuak edo erakundeak xede komunitarako elkartzea eta horien zeregina izan dadila bakoitzaren eskunduntzak batera burutzea, elkarbanatutako intereseko helburuen arabera. Kontzeptu hori praktikan esparru pertsonal eta sozialean badago. Onarpen instituzionala baino ez zaio falta.

Mankomunitate librearen ideia horren ikuskera dinamikoa izan beharko litzateke, noski; borondate politiko eta sozialaren arabera aldatu beharko litzateke, bai aurrera edo baita atzera ere. Lan honen sendotasuna honetan oinarritzen da: Nafarroako gizartearen gehiengoak leerro posibilibila eta elkartze leerro horren barruan dagoela. Nafarroaren eta EAren arteko akordio instituzionalaren alde dago: harreman etengabea, Nafarroaren subiranotasuna errespetatu dezala. Eta gainera, gizartearen gehiengoak herri kontsulta zuzena eta zehatzean erabaki nahi du Nafarroan. Gaur egungo egitura juridiko berak (4.2 puntuan ikus dezakegun bezala) hainbat «pertxa juridiko» ditu aldaketei eusteko edo baita tresna juridiko samurtzaile berriak sortzeko ere.

4.5. Herri kontsulta balioztatze demokratikoko horizonte eta prozesuaren amaiera gisa

Behar demokratikoa dela-eta, lehenbizi, eta gizalegezko komenientziaz ondoren, mota honetako prozesu baten amaiera hau izan beharko litzateke: Bakearen Foroko emaitzei buruzko gizartearen partehartze masiboa eta iritzia ematea. Biztanleek azken hitza emateko eskubidea dute eta konpromisoa, nolabait ere. Badirudi oso justifikatuta dagoela biztanleei iritzia emateko eskatzea, indar politikoek hartutako akordioen edukien oniritzia edo ukatzea emititzeko. Hori prozesuaren partehartze sozialaren eta balioztatze demokratikoaren ekintza erabakigarria eta araudizkoa da. Baina zerbait gehiago ere bada. Sinbolikoki, komunitate baten elkarbizitzako bi garaien arteko mugarrak eta zubia da: zahar eta problematikotik berri eta itzaropentsura. Nolabait ere, etorkizunetik konpon daitekeena konpontzeko prozesu izaera ere badu.